

# ❧ Hitz eta Pitz ❧

## Lau ipuin-kontalarirekin solasean

Jakin badakigu zer garrantzi handia duten ipuinek haurren garapen orokorrean. Horrela, lau euskal ipuin-kontalarirengana jo dugu haiekin solasaldi bat izateko: hautatze-prozesua nola bizi duten, zerk bultzatu zituen ipuin-kontalariak izatera... VIRGINA IMAZ, PELLO AÑORGA, MAITE FRANKO eta JOSE MARI CARRERE bildu ditugu mahai baten inguruan.



### 1. Zein dira zure iturriak kontatzeko ipuinak prestatzerakoan?

**Virginia Imaz:** Askotariko iturriak erabiltzen ditut kontatzeko ipuinetarako. Batez ere haurtzaroan entzundako ipuinak kontatzen ditut, baina baita literaturako kontakizunetan oinarritutakoak eta, gero eta gehiago, neure istorioak ere bai.

**Pello Añorga:** Ahozko tradizioko ondarea, ipuin klasikoak, munduko mitologia, gaur egungo albumak, nik idatzitako liburuak, nire bizipenak, eguneroko albisteak... Halere, askotan aurkitzen ditut kontatzeko iturriak: egunkarietan, nobeletan, entsegu liburuetan eta abarretan. Alegia, gutxien espero ditugun lekuetan, derrepentean.



**MAITE FRANKO:** Ipuin-liburuak, amak txikitan kontatutako ipuin tradizionalak, (beti kontatuak, inoiz ez irakurritakoak), kalean entzundako istorioak (*hiriko kondairak* edo), Interneten dabiltzanak eta baita, zenbaitetan, neronek asmatutakoak ere. Edonondik hartuta ere, kontalariok geure bertsioa egiten dugu.

**JOSE MARI CARRERE:** Iturri ohikoena ahozko tradizioetik datozen ipuinak dauzkat; alegia, herri-ipuinak. Dena dela, iturriak ere alde askotatik datoz: prentsa, liburuak, elkarrizketak, pasadizoak...

## 2. Nola hautatzen dituzu ipuinak?

**VIRGINIA IMAZ:** Bihotzarekin. Entzun edo irakurritako istorio batean zerbaitek hunkitu egiten banau, kontatzeko premia sentitzen dut. Zenbaitetan, barnean astindu moduko bat, lilura-sentsazioa, sentitzen dudanean aurkitzen dut kontatu gura dudana.

**PELLO AÑORGA:** Ez dakit askotan nik aukeratzen ditudan edota berek ni aukeratzen nauten. Badira

ipuin batzuek nire etxeko atea jotzen dutenak zuzenean, *kox-kox*, nire munduan sartzeko gogoia dutelakoan. Beste batzuk, aldiz, nire biltegian uzten ditut, nire *umosean*, egonean, momentu egokiaren zain, perretxikoak bezala.

**MAITE FRANKO:** Ezer baino lehen, bilatzen ari naizen ipuina(k) norentzat (zein adinetakoentzat), norako (zein herri, leku, kontatzeko baldintzak...), eta noizko (data berezia ote den ala ez) behar dudana ikusten dut. Ipuin *komodinak* izan badira, baina ni behintzat lasaiago ibiltzen naiz egokitutakoe-kin. Edozein aukeratuta ere, kontatzeko garaian atsegina sortzen duen ipuina izaten saiatzen naiz. Horrek ez du esan nahi ipuin lasai eta arrosa izan behar duenik. Mamia izan behar du, publiko eta kontalariarentzat interesgarria eta harrigarria neurri batean; pertsonaia *polarizatuak* baditu, hobe. Eta aukeran, publikoarentzat ezezaguna izan behar du.

**JOSE MARI CARRERE:** Ipuin ikuskari baten ideia izanik horretarako egokiak iruditzen zaizkidanak. Badira ere, nonbait irakurrita kontatzeko gogoia



ekartzen dizkidatenak. Izenburuak ere erakargarriak egiten zaizkit askotan.

### 3. Nola hasi zinen ipuinak kontatzen?

**VIRGINIA IMAZ:** Oharkabean, umea nintzela, entzundako istorioak errepikatuz. Gero, heldutakoan, begirale nintzen udalekuetan eta irakasle niharduen eskoletan kontatzen nituen ipuinak. Behin, 1986an, Liburu Azoka batean kontatzeko eskaintza egin zidaten... eta baita ordaindu ere! Nire pasioa lanbide bihurtzen hasita zegoela ohartu nintzen.

**PELLO AÑORGA:** Ikastolan nenbilen irakasle (orain dela 35 urte) eta konturatu nintzen ipuinak kontatzen nituen bakoitzean hegoak ematen nizkiela haurrei, eta lur berria. Eta ez bakarrik haurrei, nire buruari ere bai. Eta konturatu nintzen nola erro bera duten hitz batzuk: *magister*, *imaginarioa*, *magicien...* eta, beraz, *magisteritza* lantzeko landu behar nuela *mag*-iaren alderdia, hots, aztiarena.

**MAITE FRANKO:** Pedagogia eta antzerki-ikasketak eginak nituen ordurako. Arlo horietan lanean ibilia nintzen, oso gustura ibili ere. Hala ere, behinola, ilobekin liburutegian nintzela, amak txikitan kontatutako ipuin tradizionalak aurkitu nituen A. R. Almodóvarrek idatzitako *Cuentos al amor de la lumbre* liburuan. Fededuna ez banaiz ere, agerpen hura zerutik zetorren seinaleztat hartu nuen. Ipuin haietako batzuk prestatu, eta etxean, kandela baten argitan, ilobei kontatzen hasi nintzaizen. Hain ondo pasatzen genuela ikusita, hura nire lanbide bihurtzea erabaki nuen.

**JOSE MARI CARRERE:** Antzerkian ibilita, mundu hori ezagutzeko kuriositatez, Koldo Amezttoy ikusita, eta Mikel Markezen kantaldi batzuetan ipuinen bat sartuz tartean.

### 4. Bateragarria al dira kontaturiko ipuina eta idatziriko ipuina?

**VIRGINIA IMAZ:** Nik ipuin batzuk idatzi egiten ditut eta ahoz kontatu. Baina sormen-prozesua ez da bera izaten, nire kasuan, behinik behin.



Idazten ditudan ipuinak irakurtzeko izaten dira, eta kontatzen ditudanak sarritan kontatu ostean baino ez ditut *transkribatzen*. Ahozkoak bere lege, muga eta altxorak ditu, idatzizko literaturarenak ez bezalakoak. Ipuinak hitzez kontatzeko, ahozko-koitze-prozesu bat behar da, beti.

**PELLO AÑORGA:** Idatzita dagoena zerbait hila da, zerbait finkoa, eta mortua. Horregatik, idatzitako testua nola hila dagoen, berpiztu egin behar duzu zeure hatsaren bitartez: «*abrite postas, klis-klas*». Eskaini zure hitzaren mintza, hots, mintzoa, jendea aurrez aurre daukazularik, biluzik.

**MAITE FRANKO:** Narrazioaren egitura bera izan dezakete biek; hala ere, ipuin idatzia ahozkotasunera pasatzea itzulpen-ariketa bat egitea da, eta itzultzaileek ondo dakiten bezala, itzultzea ez da

eginkizun mekanikoa. Hasteko, kontalariak bere *irakurketa* egin behar du; ondoren, *ulermena* bermatzen duten elementuak aukeratu; eta azkenik, edota baita denbora guztian ere, *edertasuna* eta *originaltasuna* gehitu. Behin hori guztia egina dugula, behin *ahozko* bihurtu dugula, kontalariok beste lizentzia bat izaten dugu: jatorrizko istoriotik nahi adina desbidera gaitezke, bai pertsonaiak, mamia edo tonua bera aldatuta.

**JOSE MARI CARRERE:** Bi mundu ezberdin dira, nahiz eta elkar elikatu. Idazkerak bere arauak dituen bezala, ahozkotasanak ere bereak ditu.

### 5. Zein desberdintasun ikusten duzu ahozkotasanaren eta idazketaren artean?

**VIRGINIA IMAZ:** Bi sormen-jarduerok istorioak kontatzeko dira. Idatziak mila bider zuzentzeko aukera ematen du erakutsi aurretik. Ahozkoari, berriz, bat-batekotasanaren freskotasan inperfektua dario. Ahozko kontakizun guztiak ezberdinak dira: ipuina eguneratu egiten da; entzulearen eta unearen arabera, egokitu egiten da. Hartze-prozesuan ere alde handiak daude. Irakurtzea bakarkako lana izan ohi da, bai irakurlearentzat bai idazlearentzat. Ez dago bitartekaririk. Entzutea, berriz, taldeko jarduera da, hainbat ahots biltzen dituen erritua: istorioa idatzi edo asmatu zuenarena, kontatzen duenarena eta bertatik bertara entzuten duenarena. Ahozkotasunean, bitartekari-lanak egiten ditu kontatzaileak. Istorioa entzulearekin jartzen du harremanetan, eta arnasaz, ahotsaz, begiradaz baliatzen da horretarako. Narratzaileak edo kontu-kontalariak mundua ikusteko duen moduak baldintzatzen du istorioa.

**PELLO AÑORGA:** Idatzia dagoena bizkarrezurraren parekoa da. Eta kontatu nahi baduzu, zeure haragia eskaini behar diozu, zeure begiak, zeure ezpainak, zeure hankak, zeure arnasa, erritmoa, tonua...; hitz batean esateko: zeure gorputz osoa. Eta hitza hasiko da bibratzen zeure ezpainetan, momentu eta egoera bakoitzaren arabera.

MAITE FRANKO: Ahozko ipuina *bizirik* dago. *Hemen eta orain* egiten da. Horregatik, izaki bizidunekin gertatzen den bezala, berak ere eraldatzeko gaitasuna du. Demagun gaur ipuin bat estreinatu duzula. Saio batetik bestera ahozko ipuin hori aldatzen joango da, gorputza hartzen, elementu batzuk irabazi eta beste batzuk galdu egingo ditu, behar duen neurria hartu arte: hitzak, imintzioak, pausak, ahots-modulazioak, erritmoa, gorputzaren inplikazioa, publikoarekiko interakzioa..., guztien artean *partitura* bat sortuko da. Eta behin partitura osatu dugula, berriz ere aldaketak egiten hasiko gara.

Jakina, badira beste ezaugarri batzuk ere, baina ez nuke gehiegi luzatu nahi. Niretzat, aipatutakoa da esanguratsuen.

JOSE MARI CARRERE: Idatzi irakurtzeko egiten da, eta kontatu, berriz, entzuteko (eta ikusteko).

### 6. Zertan datza ipuin kontalari baten estiloa?

VIRGINIA IMAZ: Idazten dutenen artean bezalaxe, narratzailearentzat norberaren ahotsa bilatzean datza estiloa. Hau da, bere kadentzia, erritmoa, erregistroak, lexikoaren eta egitura sintaktikoen konbinazioa eta metaforaren erabilera bilatu behar ditu adierazpide moduan.

PELLO AÑORGA: Bere arnasa hartzeko modua, bere presentzia, begirada, konfiantza, tonua, erritmoa... bere hitzaren bizia, egia, umorea... gardentasuna... hitzarekiko konpromisoa... bere *performancea*, *hapenninga*...

MAITE FRANKO: Formazioak asko egiten du, jakina. Horrek kontaketa-saioaren formatua aurkitzen laguntzen digu (*hitz soileko kontaketa* ala *objektuekin* egin – mozorroak, musika edo panpinak erabilia). Alabaina, nire ustez estiloa hortik haratago doa. Nortasunarekin lotuta dago zeharo, bereziki harremanetarako dugun funtzionamenduarekin (gure enpatia-gaitasuna agerian uzten du). Horrek laguntzen digu publikoaren ezaugarriak eta interesguneak ezagutzen, haren-



gana hurbiltzen, hunkitzen, harritzen, beldurtzen, lotsatzen, atsegina sortzen ...

JOSE MARI CARRERE: Bere ikuspegi propioa azaltzean.

### 7. Antzerkiaren laguntzari buruz zer deritzozu? Mozorroak? Mimika?

VIRGINIA IMAZ: Ez naiz mozorrotzen ipuinak kontatzeko. Ez dut pertsonaia batean oinarrituz kontatzen. Virginia naiz. Hain zuzen ere, itxurak eta artifizialtasuna ahalik eta gutxien erabiltzeko modua ari naiz beti bilatzen. Xumetasuna eta naturaltasuna bilatzen ditut. Nire antzerki-pres-takuntzak lagundu egin dit, jakina. Adibidez, agertokian egoten, jendearekin harremanak izaten, nire gorputza ipuina kontatzeko aske uzten...



laguntzen dit. Baina, segur aski, nire aktore –edo clown– alderdiak gehiago jaso du ipuin-kontalariaren ezagupenetatik, alderantziz baino. Nire amonetako batek ez zuen sekula antzerkirik egin, baina oso histrionikoa zen kontatzen. Ahozko narrazioa izango zen, segur aski, gizakiaren lehen antzokia. Eta ez alderantziz.

**PELLO AÑORGA:** Ni ere pertsona naiz, hots, beste pertsonaia, eta zenbat eta gehiago ezagutu neure pertsona, orduan eta distantzia gehiago jar dezaket neure pertsona eta neure pertsonaiaren artean. Horregatik konta dezaket pertsonaia baten imintzioak nolakoak diren, nola mugitzen den, nola egiten duen salto, nola hitz egiten duen... baina beti distantziatik, hots, umoretik, neure «ni» hauskorretik.

**MAITE FRANKO:** Norberaren aukera da. Argi dago interpretazioa ahozko tasunarekin erabat lotuta dagoela. Kontua da laguntza gisa hartu dugun ala gure kontaketa *poltsikoko antzerkia* edo *bakarrizketa* bihurtu nahi dugun (kontalaria pertsonaia bihurtuta, mozorro edo atrezzo era-biliaz, buruz ikasitako testu batekin, «4. paret» edo publikoarekin interakziorik gabe eginez...). Ni antzerkigintzatik nator eta hasieran nahiko

antzerki-formatuan egiten nuen. Denborarekin berriz, *hitz soilaren bidezko kontaketa* jorratzearen beharra aurkitu nuen, hiru arrazoi nagusirengatik aurkitu ere: 1) trasteekin ibiltzea oso nekagarri eta garestia delako; 2) konturatu nintzelako *parafernalia* hori guztia nire gabeziak estaltzeko baino ez nuela erabiltzen. 3) publikoak *parafernaliari* gehiago erreparatzen ziola istorioari berari baino. Hala ere, nork bere aukera egin dezala.

**JOSE MARI CARRERE:** Ipuin-kontaketa arte eszenikoa den aldetik, multidiziplinarra da, antzerkia bezala, baina kontaketa da, ez errepresentazioa.

#### 8. Batzuek diote ipuin-kontalarien inflazio moduko bat dagoela. Zer iruditzen zaizu?

**VIRGINIA IMAZ:** Nire ustez, ipuin-eskaera gero eta handiagoa da esparru ugaritan, eta horregatik ari da gero eta jende gehiago ipuinak kontatzen. Albiste ona dela iruditzen zait. Gaur egungo arazoa hau da: lanbide oso gaztea denez, ez dago prestakuntza-ibilbide zehatzurik hitzaren artista izateko, eta intrusismo handia dago, arte eszeniko guztietan bezalaxe. Edozein sentitzen da kontatzeko gai, eta edonola egiten du. Kontu-kontalariaren ofizioan gauden guztiok intrusismoz

jokatu dugu hasieran. Beste arlo batzuetan legez, kontua ez da zenbat jende hasten den kontatzen, zenbatek irauten duen baizik. Berezko hautapena egiten du denborak. Benetan gustatzen bazaizu, kontatzen jarraitzen duzu, eta, kontatzen jarraituz gero, ikastea da normalena eta gero eta hobeto egitea, beste edozein lanbidetan bezala.

**PELLO AÑORGA:** Egia boom bat dagoela, egia leherketa bat izan dela azken urteetan. Finean, gaur egun ere, mitoak eta ipuinak behar ditugulako bizitzeko, oxigenoa bezala. Zeren, gezurra dirudien arren, tramankulu pila ditugun aro honetan, gero eta inkomunikatuagoak sentitzen garelako, eta, funtsean, besteak beste, ipuinak eta mitoak ere behar ditugulako, era zuzenean, bitartekorik gabe.

**MAITE FRANKO:** Egia da garai batean baino askoz ere gehiago garena. Eta egia da, era berean, urtero kontalari berriak sortzen direla. Hala ere, guztiak ez dute luze irauten, izan ere, *ipuinetik bizitzea* ez da dirudien bezain erraza: lanbide hau oso serio hartu, saioak asko zaindu, errepertorio berriak oso denbora gutxian prestatu, publiko guztientzako saioak izan, errepidean ordu asko pasa, enpresario izan, gure gabeziak bilatu eta horiek konpontze aldera gure burua trebatu,

eta, azkenik, zoritxarrez, askotan oso baldintza txarretan lan egin behar izaten dugu; ezin ahaztu, bestetik, programatzaileak hezi ere egin behar izaten ditugula saioak ondo antola ditzaten.

**JOSE MARI CARRERE:** Inflazioa ekonomiaren kontzeptu bat da. Agian, hori dioteneak, kulturaren merkatua nola antolatu beharko litzatekeen esan beharko dute.

**9. Zer-nolako garrantzia du hizkuntzak zure ipuin-kontaketetan? Ba al duzu harremanik euskara ez besteko hizkuntzetako kontalariekin?**

**VIRGINIA IMAZ:** Nire iritzian, hizkuntza oso garrantzitsua da kontaketan. Hitzaren esparruan gaude. Musikaltasunaz, soinuez eta onomatopeia-jokoez gain, istorioak kontatzea hitzak kontatzea da, eta horien bidez irudiak sortzea. Ulertzea garrantzitsua da. Ni hirueleduna naiz: gaztelaniaz, euskaraz eta frantsesez mintzatzen naiz arintasunez. Ordena horretan dut gaitasuna. Italiaraz eta portugesez ere kontatu izan dut ipuin laburren bat, ondo baino hobeto ikasi ondoren. Euskaraz kontatzen badut ere ipuinik gehien, gaztelaniaz gaitasun linguistiko handiagoa dut. Halere, hizkuntza jakin batean entzun, irakurri edo prestatu dudana ipuina hizkuntza horretan





etortzen zait ondoen burura, eta, sarritan, interferentzia linguistikoak izaten ditut, adibidez, beti euskaraz kontatu izan dudana istorioa gaztelaniaz kontatzea egokitzen zaidanean. Hitzaren lanbide honi esker, munduko hainbat lekutako narratzaile eta kontu-kontalariak ezagutu ahal izan ditut. 40 naziotik gorako jendea entzun dut ipuinak kontatzen. Hitzak bidaiatu egiten du. Azentuak, istorioak eta kulturak ekarri eta eramaten ditu. Ipuinek ez dute ez mugarik ez pasaporterik.

**PELLO AÑORGA:** Ni, normalean, euskaraz aritzen naiz, nahiz eta lagun minak izan beste hizkuntzetan. Nik euskararekin daukat harreman afektiboa, eta nire mihiak hobeto egiten du irrist, eta nire gorputza ez da horrenbeste lotzen, eta malguago sentitzen naiz, amurraina ur bizian bezala.

**MAITE FRANKO:** Ipuin-kontaketa saio gehienak euskaraz programatzen dira (batez ere haurrentzat direnean). Nik ere euskara erabiltzen dut gehien, zenbaitetan gaztelaniaz kontatuz. Esku artean badut, oraintxe, zenbait kontalari etorkini bat-bateko itzulpena egiteko aukera, maiatzean nire herriko liburutegian (Hondarribikoan) gauzatuko duguna. Ondo aterako balitz, batek daki, agian

hortik ere joko nuke. Oso bide interesgarria iruditzen zait.

**JOSE MARI CARRERE:** Ipuin-kontaktaren oinarri nagusia hizkuntza da; atera kontuak hortik. Tresna hori ahalik eta gehien ezagututa, kontaketa beraren baliabideak aberasten dira. Harremanak ditut katalanez, gaztelaniaz, galegoz, portugesez, ingelesez, frantsesez, japonieraz, amazigeraz, asturianoz kontatzen duten kontalariekin.

**10. HGL-en idazleek eta ilustratzaileek badute beraien txokoa, eta ipuin-kontalariak ba al dute berena? Nolako harrera edo oihartzuna dute gizartearen ipuin-kontalariak?**

**VIRGINIA IMAZ:** Ahozko narrazioaren alorrean, bagoaz poliki-poliki bidea eginaz, eta antolatzen ikasten ari gara. Duela bost urte, Euskal Herriko kontalarion elkarte sortu genuen, eta, urtean behin, ipuinaren jaia egiten dugu, Euskal Herriko herriren batean. Aurten hitzordua Bermeon izan dugu. Estatuan, ahozko narrazioaren inguruko hainbat elkarte sortu dira, azken sei urteotan. Ondorioz, estatuan ahozko narrazioaren topaketa egiten da urtero, eta hurrengo edizioa VII.a izan-



go da, dagoeneko. Urte honen hasieran, halaber, AEDA sortu zen, Espainiako ahozko narrazioaren elkarte profesionala. Lehen urte honetan, gainera, lehendakaria izateko ohorea dut. Elkarte horiek guztiek gure lanbidea ezagutaraztea, duintzea eta gure gizartean dagokion lekua errebindikatzea dute xede.

**PELLO AÑORGA:** Gero eta guraso gehiago ikusten dut aparkatzen dituztenak haurrak gure aurrean, atrakzio-parkera eramango balituzte bezala: *disneylandiara*. Eta nik kontalari bezala eskaintzen dudana ez da *atrakzi-parkea*, ez da *Disney*. Joaten naiz, gainera, «normal» jantzita. A zer disfuntzioa! Nola esplikatu nik eskaintzen dudana ez dela espektakulua?

**MAITE FRANKO:** A zer galdera zaila! Nire us-tez, gure ospea eta errekonozimendua herrien arabera da. Zenbait herritako liburuzainek lan izugarria egin dute eta egiten segitzen dute kontaketa-saioak ondo antolatzeke, gure lan-baldintzak ahalik eta egokienak izan daitezen eta, ondorioz, bai hurrek baita gurasoek ere, kontaketa-saioari duen balioa eta merezi duen errespetua eman diezaioten. Nola? Ba, adibidez, *gonbidapenen sistema* erabiliz. Liburu-maileguarekin batera, kontaketa saiora joateko gonbidapena eskaintzen zaio haurrari. Era horretan, datozen umeek adin egokia izaten dute, gurasoak kanpoan gelditzen dira, ume-kopurua kontrolatzen da, puntualtasuna bermatzen da, etab. Zoritxarrez, sistema hori (edo antzekoak) zenbait herritan baino ez da erabiltzen. Guretzat berebiziko garrantzia dute, ordea.

**JOSE MARI CARRERE:** Kontalarien elkarteak sortzen ari dira, era guztietakoak; gurean ere horretan ari gara. Oihartzun gutxi du gureak, batez ere helduen munduan, eta ez-ezagutza galanta dago jardunaren beraren gainean.

**11. Erabiltzen al duzu formularik (hasieran, hitz magikoak, amaierak...)? Baietz esanez gero, nondik sortzen dira, tradizioetik ala zuk asmatuak dira?**

**VIRGINIA IMAZ:** Bai, erabiltzen ditut hasierako eta amaierako formulak, batez ere haurrentzako eta familientzako eta ahozko tradizioiko istorioak kontatzen ditudanean. Formula tradizionalak ez ezik, neuk asmatuak ere erabiltzen ditut.

**PELLO AÑORGA:** Gehienak neronek asmatuak dira; eta beste asko momentuan sortuak, edota hurrek berek eskainiak. Horretarako, erne egon behar duzu, eta entzun. Edozein lekutan aurki daitezke hitz magikoak. Giltza txikiak bezalakoak dira, eta gure imaginarioari atea irekitzeko aproposak.

**MAITE FRANKO:** Bai, gehienok bezala, suposatzen dut. Batzuk, nik asmatutakoak dira; beste batzuk, tradizionalak. Formalismo hutsetik haratago doa horien erabilpena. Fikzioaren munduan sartzeko modurik egokiena da, eta, haur txikien kasuan, asko laguntzen die «errealitatea» edo «egia» eta «fikzioa» edo «gezurra» bereizten. Lasaitu egiten





ditu. Horrela ikasi ahal izango dute *otsoak ez dituela jango*, nahiz eta intuitu ere bizitzan barrena aurkituko dutela otsoak adina beldur eragingo dioten gauzak, horiei aurre egin eta gaingitu beharko dituztelarik, *Txanogorritxo* ipuinean agertzen den otsoarekiko beldurra zenbait urteren buruan gaingituko duten bezala.

JOSE MARI CARRERE: Formulak tarteka erabili ohi ditut. Iturria gehienetan tradizionala da, baina inoiz asmatu izan dut, hasteko zein amaitzeko.

## 12. Noraino da garrantzitsua publikoarekin zuzenean harremanetan egotea?

VIRGINIA IMAZ: Niretzat funtsezkoa da. Hitzez ipuinak kontatzea naturala da, hemen eta orain, jendearekin zuzeneko harremana izanez gero. Noizbait, itsuei kontatu izan diet ipuinen bat eta, beste inoiz, ikus-entzuleei begiratzen ez dieten narratzaile eta kontalariei entzun diet, baina harremana zuzena da beti. Bertan dagoen jendea-

rentzat kontatzen dugu. Berarekin eta berarentzat. Ipuinak irratiz edo telebistaz kontatzean sentitu izan dut plazera, baina, sekula ez, jendea aurrean dudanean eta haren arnasa entzun eta sentitzen dudanean bezala.

PELLO AÑORGA: Ipuina isilik egoten da, eta aktibatzeko behar da norbaiten belarria, hots, entzuteko prest dagoenarena. Izan ere, ipuina probatzen da jendearen aurrean, lapikoa sutan bezala. Ipuina ez ahaztu ur-harria dela, borobiltzen joaten dena entzulearen eta kontalariaren arteko errekan, ibiliaren ibiliz.

MAITE FRANKO: Gure lanbidean ezinbestekoa dugu, eta gainera, horrexek ematen dizkio, hain zuzen ere, piperra eta gatza gure eguneroko eginkizunari. Publikoak irakasten digu lan egiten, ipuinak aukeratzen, egokitzen, edertzen, interesgarri bihurtzen, kontatzen...; hori bai, nahikoa ikasi dugula uste dugunean, berriz, argi genuen hura ere hankaz gora jarriko digu. Eta hori ez da guztia:

elkarrekintza horri esker, kontalaritzaz gain, giza faktoreaz ere asko ikasiko dugu (batez ere adin guztietakoekin lan egiten dugunok.)

JOSE MARI CARRERE: Zuzeneko harremanik gabe, ahozko narrazioa gorringorik gabeko arrautza da.

**13. Zein da zure ipuinik kuttunena (kontatzekoa, jakina)? Zergatik?**

VIRGINIA IMAZ: Kontatzen ditudan ipuin guztiak dira nire gustukoena, horiexek kontatzea aukeratu baitut, irakurri eta entzun ditudan eta ez kontatzea erabaki dudana beste askoren artean. Une jakin batean bat edo beste bat kontatzeko gogoia jendeak une bakoitzean entzun gura duela uste dudanaren arabera pizten zait, eta egoera horretan barruan sentitzen dudanaren arabera. Egokiagoa litzateke, agian, bizitzan zehar zer ipuin kontatu dudana gehien galdetzea, horiexek izango baitira, seguruenek, buruan gehien darabilkidanak eta kontatzen ditudan bakoitzeko sendatzen nautenak. Haurrentzat, Maurice Sendackek ilustratutako albumeko *Munstroak bizi diren lekua* eta amonetako batek kontatzen zidan ahozko euskal tradizioko *Perikote* kontatu izan ditut gehien.

Helduentzat, berriz, Debra Fraisierren *Zu jaio zinen eguna* poesia ipuina eta Galianok ahozko tradizio kolonbiarretik jaso zuen *Lehen gizona eta lehen emakumea* istorioari egin diodan bertsioa errepikatu ditut gehien.

PELLO AÑORGA: Badira ipuin batzuk momentu jakin batean akonpainatzen zaituztenak; beste batzuk, aldiz, bizi guztian zurekin batera hazten joaten direnak, lagun minak bezala. Eta ez dizute inoiz hutsik egiten, eta konfiantza ematen dizute. Zure parte dira: bizitzako partaide. Bada, horiexek dira ipuinik kuttunenak.

MAITE FRANKO: Adinik ez dutenak, ume zein helduei ere gustatzen zaizkienak, alegia. Ez dira erraz aurkitzen. Hala ere, kontalari oso on batek lortu lezake ipuin gehienekin denengana iristea. Ez da nire kasua, jakina, baina nik hori lortzen duenik ezagutzen dut, eta, arrasto bat ematearren esango nizueke kontalari mundial horiek oso hurbil dituzuela... (elkarrizketa honetan bertan daude eta!).

JOSE MARI CARRERE: Badut bat baino gehiago. Adibidez Beñardorena. Ez nuke jakingo oso ondo zergatik, baina agian, ulertzen ez dugun barne-mundu bat aztoratzen digulako.

### Entrevista a cuatro cuentacuentos vascos y vascas

*Por todos y todas son conocidos los beneficios de los cuentos para los niños y niñas: ayudan a superar miedos, a conocerse mejor, a vivir experiencias que de otra forma no podríamos, ayudan a desarrollarse psicológicamente... Así, nos hemos acercado a cuatro contadores y contadoras de cuentos del País Vasco: Virginia Imaz, Pello Añorga, Maite Franko y Jose Mari Carrere.*

*Entre otras cosas quisimos saber cuáles son las fuentes de las que beben a la hora de preparar los cuentos, cómo seleccionan sus repertorios, cómo fueron sus inicios...*

*En definitiva, se detallan las impresiones de cuatro contadores y contadoras respecto a su profesión-afición, la de cuentacuentos.*

### Interview given by four basque storytellers

*Everyone is aware of the benefits of stories for Children: they help us to overcome fear, to get to know ourselves better, to have experiences that we would otherwise not be able to have, and they help us to develop psychologically. So we approached four storytellers from the Basque Country: Virginia Imaz, Pello Añorga, Maite Franko and Jose Mari Carrere.*

*Among other things, we were curious to know which springs they drink from when it comes to preparing their stories, how they select their repertoires, how they started, etc.*

*In short, we get details of the impressions of four storytellers about their profession-cum-hobby, that of storyteller.*

Sarah J. Turtle